# LEGEGINTZA
# FUNCIÓN LEGISLATIVA

## LEGE PROIEKTUAK
## PROYECTOS DE LEY

*Euskal sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onaren gainean* (Zuzenketak aurkezteko epea)
(10/09.01.00.0018)

Aipaturiko lege-proiektua dela-eta eskatutako agerraldiak egin direnez, Erregelamenduko 135.1 artikuluari jarraituz 15 eguneko epea zabaldu behar da proiektuari zuzenketak aurkezteko.

Eusko Legebiltzarra, 2016ko otsailaren 11

**Batzordeko lehendakaria, Juan Antonio Arieta-Araunabeña Ibarzabal**

*De transparencia, participación ciudadana y buen gobierno del sector público vasco* (Plazo de presentación de enmiendas)
(10/09.01.00.0018)

Habiéndose sustanciado las comparecencias solicitadas en relación con el proyecto de ley de referencia, procede, con arreglo al artículo 135.1 del Reglamento, la apertura de un plazo de 15 días para la presentación de emiendas a dicho proyecto.

Parlamento Vasco, 11 de febrero de 2016

**El presidente de la comisión, Juan Antonio Arieta-Araunabeña Ibarzabal**

***

## LEGE PROPOSAMENAK
## PROPOSICIONES DE LEY

*Euskal Autonomia Erkidegoko mahastiaren eta ardoaren kalitatearen defentsari buruz* (Agerraldiak)
(10/09.02.02.0022)

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Mahaiak onartu egin du Euskal Legebiltzar Talde Popularrak Euskadiko Nekazari-elikagaien Kooperatiben Federazioko ordezkariek eta Grupo Rioja Errioxako Ardo Enpresen Taldearen ordezkariek lege-proposamenari buruz azalpenak emateko egindako agerraldi-eskea.

Eusko Legebiltzarra, 2016ko otsailaren 9a

**Batzordeko lehendakaria, Javier Carro Iglesias**

*De defensa de la calidad de la viña y el vino de la Comunidad Autónoma del País Vasco* (Comparecencias)
(10/09.02.02.0022)

La Mesa de la Comisión de Desarrollo Económico y Competitividad acuerda acceder a la solicitud de comparecencia, formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, de representantes de la Federación de Cooperativas Agro-alimentarias de Euskadi y de representantes del Grupo Rioja, Grupo de Empresas Vinícolas de la Rioja, para informar sobre la proposición de ley.

Parlamento Vasco, 9 de febrero de 2016

**El presidente de la comisión, Javier Carro Iglesias**

***

## ERREGELAMENDUA ETA EBAZPEN OROKORRAK
## REGLAMENTO Y RESOLUCIONES GENERALES

*Gardentasunaren eta informazio publikoa eskuratzeko bidearen printzipioa Eusko Legebiltzarrean aplikatzeari buruzkoa*
(10/09.03.02.0003)

Mahaiak, 2016ko otsailaren 9ko bileran, onartu du Lehendakaritzaren ondoko ebazpen oroko-

*Relativa a la aplicación del principio de transparencia y acceso a la información pública en el Parlamento Vasco*
(10/09.03.02.0003)

La Mesa, en su reunión del día 9 de febrero de 2016, aprueba la siguiente resolución general de la

rra eta agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**LEHENDAKARITZAREN EBAZPEN OROKORRA, GARDENTASUNAREN ETA INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO BIDEAREN PRINTZIPIOA EUSKO LEGEBILTZARREAN APLIKATZEARI BURUZKOA**

Erregelamenduko 37.3 artikuluan xedatutakoaren kariaz, Eusko Legebiltzarreko lehendakariak, Mahaiaren eta Bozeramaileen Batzordearen aldeko iritziarekin, honako ebazpen orokor hau erabaki du, eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agindu du.

**1. artikulua. Xedea**

Ebazpen orokor honen xedea da gardentasunaren eta informazio publikoa eskuratzeko bidearen printzipioak aplikatzea Administrazio Zuzenbidearen mendeko Eusko Legebiltzarraren jarduerari dagokionez, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera.

Ebazpen orokor honek osatzen du, legebiltzar-jardueraren gardentasunari eta legebiltzar-informazioa eskuratzeko bideari buruz Legebiltzarraren Erregelamenduan dauden zehaztapenekin batera, gardentasun-printzipioaren araubide osoa Eusko Legebiltzarrean.

**1. KAPITULUA**
**PUBLIKOTASUN AKTIBOA**

**2. artikulua. Gardentasun Ataria**

1. Eusko Legebiltzarrak bere web orrian argitaratuko du, aldian-aldian eta eguneratuta, garrantzizkoa den informazioa bere jardueraren eta funtzionamenduaren gardentasuna bermatzeko. Horretarako, Gardentasun Ataria sortzen da, eta hor jasoko da informazio guztia modu argi, antolatu eta ulergarrian eta, ahal dela, berrerabiltzeko moduko formatuetan.

2. Eusko Legebiltzarreko Mahaiak erabaki eta gainbegiratuko ditu Gardentasun Atarian argitaratzeko informazioaren edukiak. Nolanahi ere, Eusko Legebiltzarraren Gardentasun Atarian argitaratuko da gai hauei buruzko informazioa:

    a) Legebiltzarraren antolamendua eta eginkizunak.

    b) Legebiltzarkideen eta legebiltzar-taldeen jarduerak.

    c) Garrantzi juridikoa duen informazioa.

Presidencia y ordena su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**RESOLUCIÓN GENERAL DE LA PRESIDENCIA RELATIVA A LA APLICACIÓN DEL PRINCIPIO DE TRANSPARENCIA Y ACCESO A LA INFORMACIÓN PÚBLICA EN EL PARLAMENTO VASCO**

En virtud de lo dispuesto en el artículo 37.3 del Reglamento, la Presidenta del Parlamento Vasco, con el parecer favorable de la Mesa y de la Junta de Portavoces, ha acordado la presente resolución de carácter general, ordenándose su publicación en el Boletín Oficial de la Cámara.

**Artículo 1. Objeto**

La presente resolución general tiene por objeto la aplicación de los principios de transparencia y acceso a la información pública de la actividad sujeta a Derecho administrativo del Parlamento Vasco, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

Esta resolución general junto con las precisiones contenidas en el Reglamento de la Cámara referidas a la transparencia de la actividad parlamentaria y acceso a la información parlamentaria constituyen el régimen integral del principio de transparencia en el Parlamento Vasco.

**CAPÍTULO 1**
**PUBLICIDAD ACTIVA**

**Artículo 2. El Portal de Transparencia**

1. El Parlamento Vasco publicará en su página web de forma periódica y actualizada la información relevante para garantizar la transparencia de su actividad y funcionamiento. A tal efecto se crea un Portal de Transparencia donde constará toda la información de manera clara, organizada y entendible y, preferentemente, en formatos reutilizables.

2. La Mesa del Parlamento Vasco decidirá y supervisará los contenidos de la información a publicar en el Portal de Transparencia. En todo caso, serán objeto de publicación en el Portal de Transparencia del Parlamento Vasco la información relativa a:

    a) Organización y funciones de la Cámara.

    b) Actividades de los parlamentarios y grupos parlamentarios.

    c) Información de relevancia jurídica.

d) Ekonomia, aurrekontu eta kontratu arloko informazioa.

e) Legebiltzar Administrazioari buruzko informazioa.

f) Herritarrekiko harremana.

g) Datu irekiak.

3. Eusko Legebiltzarreko Idazkaritza Nagusiak behar diren neurriak hartuko ditu Gardentasun Ataria martxan jartzeko eta administratzeko, irisgarritasun-, elkarreragingarritasun- eta berrerabilera-printzipioen arabera.

## 2. KAPITULUA INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA

### 1. atala Araubide orokorra

**3. artikulua. Informazioa eskuratzeko eskubidea**

Pertsona orok du Eusko Legebiltzarraren esku dagoen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, informazio hori haren legebiltzar-eginkizunak betetzen eta Administrazio Zuzenbidearen mendeko bere jardueran sortua denean eta zeinahi dela ere edukien edo dokumentuen formatu edo euskarria, ebazpen orokor honetan aurreikusitako moduan.

**4. artikulua. Informazioa eskuratzeko eskaerak ebazteko eskumena duen organoa**

Gardentasun Atarian argitaratuta dagoen informazioari buruzko eskaeren erantzuna kasuan kasuko zuzendaritzara bideratzea eragotzi gabe, legelari nagusiak ebatziko ditu informazio publikoa eskuratzeko eskaerak, ebazpen orokor honetan xedatutakoaren arabera aurkeztu badira.

**5. artikulua. Informazioa eskuratzeko eskubidearen mugak**

1. Herritarrek legebiltzar-informazioa eskuratzeko duten eskubidea ezin izango da mugatu Legebiltzarraren Erregelamenduan arautako kasuetan baizik eta Legebiltzarreko organoen arau eta ebazpenetan arautuetan baino.

2. Administrazio Zuzenbidearen mendeko Eusko Legebiltzarraren jarduera instrumentalari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea ezin izango da mugatu pertsonen intimitateari eragiten zaiolako baizik edo gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko legearen 14.1 artikuluan aurreikusitako kausaren batengatik baino.

d) Información económica, presupuestaria y contractual.

e) Información sobre la Administración parlamentaria.

f) Relación con la ciudadanía.

g) Datos abiertos.

3. La Secretaría General del Parlamento Vasco adoptará las medidas necesarias para la puesta en marcha y administración del Portal de Transparencia, de acuerdo con los principios de accesibilidad, interoperabilidad y reutilización.

## CAPÍTULO 2 DERECHO DE ACCESO A LA INFORMACIÓN PÚBLICA

### Sección 1 Régimen general

**Artículo 3. Derecho de acceso a la información pública**

Todas las personas tienen derecho a acceder a la información pública que, en el ejercicio de sus funciones parlamentarias y de su actividad sujeta a Derecho administrativo, obre en poder del Parlamento Vasco, cualquiera que sea el formato o soporte de los contenidos o documentos, en los términos previstos en la presente resolución general.

**Artículo 4. Órgano competente para resolver las solicitudes de acceso a la información**

Sin perjuicio de que las peticiones referentes a información que ya estuviera publicada en el Portal de Transparencia sean atendidas mediante la remisión a la dirección correspondiente, el letrado mayor resolverá las solicitudes de acceso a la información pública presentadas de conformidad con lo dispuesto en esta resolución general.

**Artículo 5. Límites del derecho de acceso a la información**

1. El derecho de acceso de los ciudadanos a la información parlamentaria solo podrá ser limitado en los supuestos regulados en el Reglamento de la Cámara y en las normas y resoluciones de sus órganos.

2. El derecho de acceso a la información sobre la actividad instrumental del Parlamento Vasco sujeta a Derecho administrativo solo podrá limitarse por afectar a la intimidad de las personas o por cualquiera de las causas previstas en el artículo 14.1 de la Ley de transparencia, acceso a la información y buen gobierno.

3. Mugen aplikazioa justifikatua eta babes-xede eta -helburuaren araberakoa izango da eta kontuan hartuko ditu kasuaren zertzeladak, informazioa eskuratzea justifikatzen duen goragoko interesen bat tartean egotea bereziki.

4. Artikulu hau aplikatzeko ematen diren ebazpenak argitaratu egin beharko dira, datu pertsonalak bereizi ondoren eta interesdunei jakinarazi eta gero.

3. La aplicación de los límites será justificada y proporcionada a su objeto y finalidad de protección y atenderá a las circunstancias del caso, en especial a la concurrencia de un interés superior que justifique el acceso.

4. Las resoluciones que se dicten en aplicación de este artículo serán objeto de publicidad, previa disociación de los datos de carácter personal que contuvieran, una vez hayan sido notificadas a los interesados.

**6. artikulua. Datu pertsonalak babestea**

Eskatutako informazioak datu bereziki babestuak baditu, gardentasunari eta datu pertsonalen babesari buruz indarrean dagoen araudia aplikatuko da.

**Artículo 6. Protección de datos de carácter personal**

Si la información solicitada contuviera datos personales, se estará a lo dispuesto en la regulación vigente en materia de protección de datos personales y de transparencia.

**7. artikulua. Informazioaren zati bat eskuratzea**

Aurreikusitako mugaren baten aplikazioak ez badio informazio guztiari eragiten, informazioaren zati bat –mugaketak eragindako informazioa kenduta– eskuratzeko baimena emango da, baldin eta horrek ez badakar informazioa distortsionatua edo zentzugabea izatea. Hala egiten bada, eskatzaileari jakinarazi beharko zaio informazioaren zati bat kendu egin dela.

**Artículo 7. Acceso parcial**

Cuando la aplicación de alguno de los límites previstos no afecte a la totalidad de la información, se dará el acceso parcial previa omisión de los contenidos afectados por el límite, salvo que de ello resulte una información distorsionada o carente de sentido. En este caso deberá indicarse al solicitante qué parte de la información ha sido omitida.

**2. atala**
**Informazio publikoa eskuratzeko eskubideaz baliatzea**

**Sección 2**
**Ejercicio del derecho de acceso a la información pública**

**8. artikulua. Informazioa eskuratzeko eskaera**

1. Informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzeko prozesua eskaera aurkezten denean hasiko da.

2. Eskaera honako hauek egiaztatzeko aukera ematen duen bitartekoren baten bidez aurkeztuko da:

   a) Eskatzailearen nortasuna.

   b) Eskatzen den informazioa.

   c) Harremanetarako helbidea, ahal bada elektronikoa, jakinarazpenak egiteko.

   d) Hala badagokio, eskatutako informazioa zein modalitatetan jaso nahi den.

3. Eskatzaileak ez du arrazoitu beharko zergatik eskuratu nahi duen informazioa. Hala eta guztiz ere, informazio hori eskatzeko arrazoiak azaldu ahalko ditu, ebazpena emateko, kontuan hartu ahalko dira.

4. Eusko Legebiltzarrak formulario elektroniko bat emango du, eskaera horiek aurkeztu ahal izateko.

**Artículo 8. Solicitud de acceso a la información**

1. El procedimiento para el ejercicio de derecho de acceso a la información se iniciará con la presentación de la correspondiente solicitud.

2. La solicitud podrá presentarse por cualquier medio que permita tener constancia de:

   a) La identidad del solicitante.

   b) La información que solicita.

   c) Una dirección de contacto, preferentemente electrónica, a efectos de comunicaciones.

   d) En su caso, la modalidad que se prefiera para acceder a la información solicitada.

3. El solicitante no está obligado a motivar su solicitud de acceso a la información. Sin embargo, podrá expresar los motivos por los que solicita la información que podrán ser tenidos en cuenta cuando se dicte la resolución.

4. El Parlamento Vasco facilitará un formulario electrónico que permita la presentación de estas solicitudes.

### 9. artikulua. Eskaerak ez onartzeko kausak

Ez dira izapidetzeko onartuko, ebazpen arrazoitu bidez, honako eskaera hauek:

a) Egiteko bidean den informazioari edo argitaratze orokorrerako bidean den informazioari buruzkoak.

b) Informazio osagarriari edo laguntzarako informazioari buruzkoak, hala nola oharretan, zirriborroetan, iritzietan, laburpenetan eta barne-komunikazio eta -txostenetan jasotakoa.

c) Hedatzeko, aldez aurretik, berriro prestatzea eskatzen duen informazioari buruzkoak.

d) Eusko Legebiltzarraren esku ez dagoen informazioari buruzkoak.

e) Argi eta garbi errepikakorrak edo neurriz kanpokoak direnak, gardentasun-helburuarekin justifikatu ezin direnak.

f) Pertsonen edo instituzioen aurka hitz iraingarriak dituztenak.

### 10. artikulua. Tramitazioa

1. Eskaeran ez denean behar bezala identifikatzen informazioa, egileari eskatuko zaio zehaztu dezala hamar eguneko epean, eta adieraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskaeran atzera egiten duela ulertuko dela eta ebazpena emateko epea eten egiten dela.

2. Eskatutako informazioak hirugarren batzuen eskubide edo interesei eragin badiezaieke, eta behar bezala identifikatuta badaude, hamabost eguneko epea emango zaie nahi dituzten alegazioak egiteko. Eskaera-egileari horren berri eman beharko zaio, eta, era berean, jakinaraziko zaio ebazpena emateko epea eten egiten dela harik eta alegazioak hartzen diren arte edo alegazioak aurkezteko epea igarotzen den arte.

### 11. artikulua. Ebazpena

1. Informazioa eskuratzeko baimena emateko edo ez emateko ebazpenari dagokionez, eskaera jaso eta gehienez hilabeteko epean jakinarazi beharko zaio ebazpena eskatzaileari, bai eta eragiten zaien besteei, hala eskatzen badute.

2. Eskatutako informazioaren bolumena edo konplexutasuna direla-eta beharrezkoa bada, eta aldez aurretik eskatzaileari jakinarazita, epe hori beste hilabete batez luzatu ahalko da.

3. Arrazoituak izango dira informazioa eskuratzea ukatzen duten ebazpenak, zati bat eskuratzea baimentzen dutenak edo eskatutako modalitatearen bidez barik beste modu batez eskuratzea

### Artículo 9. Causas de inadmisión

Se inadmitirán a trámite, mediante resoluciones motivadas, las solicitudes:

a) Que se refieran a información que esté en curso de elaboración o de publicación general.

b) Referidas a información que tenga carácter auxiliar o de apoyo como la contenida en notas, borradores, opiniones, resúmenes, comunicaciones e informes internos.

c) Relativas a información cuya divulgación requiera una acción previa de elaboración.

d) Relativas a la información que no obre en poder del Parlamento Vasco.

e) Que sean manifiestamente repetitivas o tengan un carácter abusivo no justificado con la finalidad de transparencia.

f) Que contengan expresiones ofensivas contra personas o contra instituciones.

### Artículo 10. Tramitación

1. Cuando la solicitud no identifique de forma suficiente la información, se pedirá al solicitante que la concrete en un plazo de diez días, con indicación de que, en caso de no hacerlo, se le tendrá por desistido, así como la suspensión del plazo para dictar resolución.

2. Si la información solicitada pudiera afectar a derechos o intereses de terceros, debidamente identificados, se les concederá un plazo de quince días para que puedan realizar las alegaciones que estimen oportunas. El solicitante deberá ser informado de esta circunstancia, así como de la suspensión del plazo para dictar resolución hasta que se hayan recibido las alegaciones o haya transcurrido el plazo para su presentación.

### Artículo 11. Resolución

1. La resolución por la que se conceda o se deniegue el acceso deberá notificarse al solicitante y a los terceros afectados que así lo hayan solicitado en el plazo máximo de un mes desde la recepción de la solicitud.

2. Cuando el volumen o la complejidad de la información solicitada lo haga necesario, y previa notificación al solicitante, el plazo podrá ampliarse otro mes.

3. Serán motivadas las resoluciones que denieguen el acceso, las que concedan el acceso parcial o a través de una modalidad distinta a la solicitada y las que permitan el acceso cuan-

baimentzen dutenak eta hirugarren bat aurka azaldu arren eskuratzea baimentzen dutenak.

4. Ebazteko gehieneko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskaera ez dela onartzen ulertuko da.

**12. artikulua. Informazio-unitatea**

Eusko Legebiltzarreko Idazkaritza Nagusiak behar diren neurriak hartuko ditu herritarren informazio-eskaerak kudeatzeko.

**13. artikulua. Eskuratzea formalizatzea**

1. Ahal dela, bide elektronikoz eskuratuko da informazioa.

2. Informazioa dagoeneko argitaratua izan bada, zilegi izango da ebazpenean informazio hori non eskuratu daitekeen besterik ez adieraztea eskatzaileari.

3. Informazioa eskuratzea doakoa izango da.

**14. artikulua. Errekurtsoa Eusko Legebiltzarreko Mahaiari**

1. Administrazio Zuzenbidearen mendeko Legebiltzarraren jarduerari buruzko informazio publikoa eskuratzearen arloan legelari nagusiak ematen duen ebazpen espres ororen aurka, errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio Eusko Legebiltzarreko Mahaiari.

2. Mahaiari errekurtsoak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, aurkaratutako egintza jakinarazi eta biharamunetik edo administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

3. Ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea hilabetekoa izango da, eta, epe hori igaro ondoren, errekurtsoa onartu dela ulertuko da.

4. Ebazpenak Eusko Legebiltzarraren webgunean argitaratuko dira.

**15. artikulua. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa**

Administrazio Zuzenbidearen mendeko jarduearen informazioa eskuratzeari buruzko Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren behin betiko ebazpena aurkaratu egin ahalko da administrazioarekiko auzi-errekurtso bidez EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan.

**Xedapen gehigarria. Informazioa eskuratzeko eskubidearen arauketa bereziak**

Informazioa eskuratzeko araubide juridiko espezifikoa duten gaietan, haien araudi espezifikoari jarrai-

do haya habido oposición de un tercero.

4. Transcurrido el plazo máximo para resolver sin que se haya dictado y notificado resolución expresa se entenderá que la solicitud ha sido desestimada.

**Artículo 12. Unidad de información**

La Secretaría General del Parlamento Vasco adoptará las medidas necesarias para la gestión de las solicitudes de información de los ciudadanos.

**Artículo 13. Formalización del acceso**

1. El acceso a la información se realizará preferentemente por vía electrónica.

2. Si la información ya ha sido publicada, la resolución podrá limitarse a indicar al solicitante cómo puede acceder a ella.

3. El acceso a la información será gratuito.

**Artículo 14. Recurso ante la Mesa del Parlamento Vasco**

1. Frente a toda resolución expresa del letrado mayor en materia de acceso a la información pública sobre la actividad del Parlamento sujeta a Derecho administrativo podrá interponerse recurso ante la Mesa del Parlamento Vasco.

2. El plazo para la interposición de recursos ante la Mesa será de un mes desde el día siguiente al de la notificación del acto impugnado o desde aquel en que se produzcan los efectos del silencio administrativo.

3. El plazo máximo para resolver y notificar el recurso será de un mes, transcurrido el cual se entenderá estimado.

4. Las resoluciones se publicarán en la web del Parlamento Vasco.

**Artículo 15. Recurso contencioso-administrativo**

La resolución definitiva de la Mesa del Parlamento Vasco sobre el acceso a la información de la actividad sujeta a Derecho administrativo podrá ser impugnada mediante interposición de un recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

**Disposición adicional. Regulaciones especiales del derecho de acceso a la información**

Se regirán por su normativa específica, y por esta resolución con carácter supletorio, aquellas mate-

tuko zaio, eta, haren ordezko gisa, ebazpen honi.

**Azken xedapenetako lehenengoa. Ordezko araubidea**

Gardentasunari, informazioa publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko araudia ordezko gisa aplikatuko da Administrazio Zuzenbidearen mendeko Eusko Legebiltzarraren jarduerari buruzko informazio publikoa eskuratzeko eskubideari dagokionez.

**Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean sartzea**

Ebazpen hau Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

***

rias que tengan un régimen jurídico específico de acceso a la información.

**Disposición final primera. Régimen supletorio**

La regulación vasca sobre transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno se aplicará supletoriamente en relación con el derecho de acceso a la información pública sobre la actividad del Parlamento sujeta a Derecho administrativo.

**Disposición final segunda. Entrada en vigor**

La presente resolución entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

***